

# Festa egiten ikasiz

bixente vrignon

ATZOKOA Haurren Eguna izanik, baiones ttipi andana bildu zen herriko karriketari, haien moduko festetan parte hartzeko. Berrikitan kontuan hartuak izan dira haurrak festen egitarauan, eta bospasei urtez, ekitaldi anitz sortu dira beren alde. Era horretan, haurren danborrada atera da atzo Albert I eskolatik. Ekitaldi horrek, Besteak elkarteak antolatzen du eta urtean eskaintzen du hurrei danborradan parte hartzeko kurtsoak. Berrogeita hamar haurrek baino gehiagok parte hartu zuten danborradan, harro harroak, beren atabalarekin. Beren adineko beste anitz ere elgarretaratuak ziren haien ikusteko. Goiz honetan ere izanen da danborrada txikia.

## Gurpilletako zezenak

Baina oraino haur gehiago bildu dira egindako Entzierro Txikian. Baionako Ardukarikari elkarteak bere gain hartu zuen Entzierro Txikia antolaketa orain dela hiru urte, eta segidan arrakasta handia ukan du ekitaldi berri horrek. Atzo goizeko 11:00etan, Baionako Euskaldunen karrika hurrez bete zen, sei urtetik hamarrera arteko hurrez hain justu, egunkaria tolestua eskuan. Ardukarikari antolatzaileen manatuz, hurrek kantuz galdegintza dute San Ferminen bendizioa, zezenak atera aitzin. Zaila izan zaie antolatzaileei burasoak kanpo emateko, eta behin baino gehiagotan esplikatu izan behar izan zuten entzierroa ttipientzat bakarrik zela eta lanjerarik ez zela batere.

Lehen adarra ikusi zutelarik, oiheri izugarri bat bota zuten baiones ttipiek eta hasi ziren lasterka, herriko etxerantz. Errobi ibaiko bazterretatik pasatuz. Hala ere, entzierro honetako zezenak ez dira lanjerosak, nahiz eta egiazkoak diruditen. Ardukarikariok gurpilik ezarri dizkiete beren kartoizko zezenei eta, gibelatik pusatuz, hurrekin jokoan sartzen dira. Zauriturik ez, beraz, atzoko entzierroan, nahiz eta batzuetan zezenek franko finki jo zituzten hurbiltzen zitzaizkien haurrak, edo beste batzuk entseatu zuten adar bat kentzea etxerat eramateko trofeo bezala.

Haurrak eta zezen guziak herriko etxerat heldu eta ttipiak



Haurren Eguna ospatu zuten atzo baionesek.

BOB EDME

## Azken bospasei urteotan ekitaldi ainitz antolatu dituzte hurrei zuzenduak

bildu ziren burasoekin, Leon erregearen iratzartzearen begiratzeko. Herriko Etxeko plazan beste haur batzuek, Gipuzkoa eta Landesetakoek, dantzak eskaini zizkieten. Han elgarretaratu ziren Baionako Haurren Danborradarekin, orduan bukatu baitzuten herriko itzulia.

Bezperan Andoni Egaña bertsolariak ireki zituen festak, eta atzo goizean, berriz, bertsolari eskolakoen aldia zen. Hamar bat hurrek, Ernest Alkhat bertsolariarekin batera, bertso batzuk bota dituzte Baionako festak aipatuz. Azkenean eguerditan zuzenean, Leon erregea agertu

da balkoian eta haur guziak agurtu ditu.

Arratsaldean, harresien baratzetan, herri bazkaria antolatua zen haur guztientzat. Baionako festen arrakastaren froga bezala, Pepsi eta Mars edari eta gozokiaren markak bazkari horren laguntza erabaki dute aurten. Haurrentzako eguneko egitaraua bukatu da Zigante Ttipien desfilearekin.

Besteak elkarteak antolatu du berriz ekitaldi hori. Beren partaideetako haurrak dira bi metro eta erdiko Zigante Ttipi horiek eramaten dituztenak Baionako karriketari.

## Militarrak festan

RPIMA letra horiek ikusgarriak izanen dira behin baino gehiagotan Baionako festetan.

Hori da frantses armadaren erregimentuak okupatzen duen Baionak «Jauregi berria». Harrigarria bada ere batzuentzat, frantses militarrek ofizialki parte hartzen dute Baionako festetan, Herriko Etxeak gomiturik.

Erakusgarri bezala era honetan eskaini zaie baionesei jauskarien laxatzea, Aturri ibaian, herriko etxearen aitzinean. Gerla balitz bezala, jauskariak saltatuko dute helikopteroetatik uraraino.

Bestalde, hurrei proposatu izanen zaien animazioa ere armadarena izanen da. Era horretan, militarrek proposa-

tzen dute soka batetik loturik salto egitea, hurrek jauskariak balira bezala ari daitezten saio horrekin.

Salto egin ondoren, sari bezala, «jauskari asignatura», beren argazki batekin lortzen dute baiones ttipiek, egindakoaren oroigarri gisa.

Azken finean, militarrek beren musika bandarekin Baionako karriketari presentzia badute.

Baionako RPIMako banda bakarra da frantses armadan. Kargudunek, gainera, asmoa dute luzaz mantentzea musika banda hori festetan parte hartuz, eta erratan dute musika talde horrek aiseagoak egiten dituela herrikoekiko harremanak.